



Urretxuko udala



## **ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

### **XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua**

Udal honek Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga ezarri eta exijitzen du, ordenantza honen eta bere Eranskinean azaltzen diren tarifen arabera, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta tributuari dagokion Foru Arauan aurreikusitakoari jarraiki.

#### **2. artikulua**

Ordenantza udal barruti osoan aplikatzen da.

### **II EGITATE EZARGARRIA**

#### **3. artikulua**

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga zeharkako tributu bat da, eta bere zerga-gaia sortzen da udalerrriaren barruan edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteagatik, horretarako obra edo hirigintza lizentzia jasotzea exijitzen denean, lizentzia hori jaso edo ez, edo erantzukizunezko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu beharra dagoenean, baldin eta lizentzia ematea edo kontrol jarduera egitea Udal honi badagokio.

#### **4. artikulua**

Zergapeko egitate ezargarrak, banan-banan adierazita, ondorengo hauek dira:

1. Solairu berridun mota guztietako eraikuntza edo instalazioetako eraikitze-obrak.
2. Dauden mota guztietako eraikuntza edo instalazioak handitzeko obrak.
3. Dauden mota guztietako eraikuntza eta instalazioen egituraren eragin dezaketen aldaketa edo erreformak.
4. Dauden mota guztietako eraikuntza eta instalazioen kanpoko itxuraren aldaketa dakartenak.
5. Eraikuntzen barne antolamendua aldatzen duten obrak, beraien erabilera edozein delarik.
6. Lurzoruaren Legeko testu bateratuko 58. artikuluko 2. atalean azaltzen diren eta behin-behineko izaerarekin egin behar diren obrak.
7. Zerbitzu publikoen instalaziorako obrak.
8. Lur higidurak, hala nola, lur-erauzketak, lauketak, indusketak eta lurreztatzeak, baldin eta egintza horiek, onartu edo baimendutako Hirigintza edo Eraikuntza Proiekturen batean zehaztu eta programatutako obrak ez badira.



Urrtxuko udala



9. Eraikuntzen erauzketa, aurri zorian daudela aitortuetan izan ezik.
10. Aparkaleku, industria, merkataritza edo lanbide jarduera, zerbitzu publiko edo lur-azpiari ematen zaion beste erabilera batzuetara bideratutako lurpeko instalazioak.
11. Bide publikotik ikusteko moduan propaganda kartelak jartzea.
12. Gaitasun ekonomikoa erakusten duen inbertsio ekonomikoa eta obra eta hirigintza baimena beharrezkoak dituen edozein obra, eraikuntza edo instalazio.
13. Lursailak hesitzeko instalazioak.

## 5. artikulua

Zerga honen pean ez dira egongo Udal honi dagokion jabari titularitateko higiezinetan egindako eraikuntza, obra edo instalazioak, baldin eta obraren jabetza Udalak badu.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita dago edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horren jabeak Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Estatu edo toki erakundeak direnean, baldin eta, zergari lotuta egonik, zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko eta populazioen eta ur zikinen saneamendura zuzenduta badago, nahiz eta horien kudeaketa, dela inbertsio lanetan dela artapen lanetan, erakunde autonomoek egin.

## III SUBJEKTU PASIBOAK

### 6. artikulua

Eraikuntza, instalazio edo obraren jabe diren pertsona fisiko, pertsona juridiko eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35.3. artikuluan aipatzen dituen entitateak dira, zergadun gisa, zerga honen subjektu pasiboak, horiek egiten diren ondasun higiezinaren titularrak izan edo ez.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, lanek sortarazten dituzten gastuak edo kostua jasaten dituen izango da eraikuntza, instalazio edo obraren jabea.

### 7. artikulua

Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira lizentziak eskatzen dituztenak, erantzukizuneko aitorpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

Ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa exiji diezaioke ordezkotzat zergadunari.

## IV OINARRI EZARGARRIA

### 8. artikulua



**Urretxu**ko udala



Eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostuak eraten du zergaren oinarri ezargarrria; ondorio horietarako, kostu hori eraikuntza, instalazio edo obra gauzatzeko kostu materiala dela jotzen da.

Oinarri ezargarririk kanpo geratzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta erregimen berezietako antzeko beste zergak, eraikuntza, instalazio edo obrekin lotuta egon litezkeen tasa, prezio publiko eta udal mailako gainerako ondare-prestaziok, eta, orobat, profesionalen ordainsariak, kontratistaren mozkin enpresariala eta hertsieratsian exekuzioaren kostu materiala osatzen ez duten bestelako kontzeptuak.

## **V ZERGA KUOTA**

### **9. artikulua**

Oinarri ezargarriri I Eranskinean adierazten den karga tasa aplikatuz aterako da zerga honen kuota.

## **VI SORTZAPENA**

### **10. artikulua**

Zergaren sortzapena, eraikuntza, instalazio edo obra hasierakoan bertan gertatzen da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.

## **VII KUDEAKETA**

### **11. artikulua**

Lizentzia eman edo erantzukizuneko aitorpena zein aurretiazko komunikazioa aurkeztzen bada, edo, lizentzia oraindik eskatu, eman edo ukatu gabe egonik edo aitorpena zein komunikazioa oraindik ez aurkezturik, eraikuntza, instalazio edo obra hasten bada, konturako behin-behineko likidazio bat egingo da, oinarri ezargarrria honela kalkulaturik.

Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, betiere kasuan kasuko elkargo ofizialak hura bisatu badu, baldintza hori nahitaezkoa denean.

### **12. artikulua**

Dagokion lizentzia eman ondoren, lehen proiektua aldatzen bada, aurrekontu berria aurkeztu beharko du, hasierakoak izan duen igoeraren arabera behin-behineko likidazio berria egiteko.

### **13. artikulua**

Eraikuntza, instalazio edo obra amaitutakoan, eta haren kostu erreal eta efektiboa aintzat harturik, Udalak, bidezko egiaztapen administratiboa egin ondoren, 11. artikuluan aipatutako oinarri ezargarrria aldatuko du, hala badagokio. Kasu horretan,



**Urretxu**ko udala



behin betiko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari behar den zenbatekoa eskatu edo, behar bada, itzuliko dio.

#### **14. artikulua**

Zergaren likidaziorako, isiltasun administratibo positibo bidez emandako lizentziek, espresuki emandakoen balio berdina izango dute.

#### **15. artikulua**

Ordenantza honetan araututako zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokionez, eta era berean zergarekiko arau-hausteen kalifikazioa eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zehapenak erabakitzeari dagokienez, Foru Zergaren Arau Orokorrean aurreikusitakoa izango da aplikagarri.

#### **16. artikulua**

Lizentziaren titularrak erabakitzen badu baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez burutzea, eta idatzi bidez espresuki uko egiten badie, Udalak eginiko behin-behineko likidazioa itzuli edo ezabatuko du.

#### **17. artikulua**

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egindako likidazioa itzuli edo ezabatuko du, baldin eta titularrak hori berritzea eskatu eta Udalak onartzen ez badu.

### **VIII AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau eta bere eranskinak 2015eko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean, eta indarrean jarraituko du, aldatzea edo derogatzea erabaki arte.

### **ERANSKINAK**

#### **I ERANSKINA: KARGA TASA: %5**

#### **II ERANSKINA: HOBARIAK**

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, ondoko hobariak ezartzen dira:

-100eko 95a arteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.



Urretxuko udala



-%90eko hobaria nekazaritzan, abeltzaintzan edo basoan bakarrik aritzen den familia unitateko norbaitek eraikitako obra, eraikuntza edo instalazioetan, baldin eta elkarte edo komunitatea eratzen ez bada eta ustiaketari lotuta baldin badago. Nekazal turismoan dihardutenak ere kanpoan geratzen dira.

-Nekazaritzan, abeltzaintzan edo basoan zati batean aritu (familia unitateko kideren bat beste jardueraren batean dabilenean) eta obra, instalazio edo eraikuntza egiten duten familia unitateek %60ko hobaria izango dute zerga honen kuotan, beti ere sozietatea edo komunitatea eratzen ez badute.

Hobari eskaerarekin batera Nekazal Ganbararen ziurtagiria aurkeztu beharko da, bertan titularraren jarduera adieraziz eta ustiaketa hori nagusia edo mistoa den zehaztuz.

-%90eko hobaria fatxadak txukuntzeko eta berritzeko obretan, aldamiioei eta margotzeari dagozkien partidei aplikatuta, aldez aurreko zarpiatzea eta lixatzea barne, eta isolamendua, inpermeabilizazioa eta eraikinaren estetika hobetzeko ez direnak kanpo.

-%90eko hobaria desgaituen sarbidea eta bizigarritasun baldintzak errazteko eraikuntza, instalazio eta obretan, bizitegi-erabilerarako diren eta 2005a baino lehen eraikitako eraikinetan irisgarritasun araudia betetzeko.

-%50eko hobaria eraikuntza, instalazio eta obretan, babes ofizialeko etxebizitza obra berriak direnean. Tasatutako etxebizitza promozioek ez dute hobaririk izango.

Hobariak eskatu egin behar dira eta euren artean bateraezinak dira. Subjektu pasibo berberak hobari bat baino gehiago jasotzeko eskubidea badu, horietako bat aukeratu beharko du. Bestela, udal-administrazioak bere ustez subjektu pasiboarentzat onuragarriena den hobaria aplikatuko du.